


# EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA



# BOLETÍN OFICIAL DEL PAÍS VASCO

Itundutako posta-ordaina: 8/98

Internet

Franqueo concertado: 8/98

Administrazioa: Donostia kalea, 1

www.euskadi.net

Administración: c/ Donostia-San Sebastián, 1

Legezko Gordailua: VI - 286 - 78 - VITORIA-GASTEIZ

Depósito Legal: VI - 286 - 78 - VITORIA-GASTEIZ

## Bestelako Xedapenak

### OSASUN SAILA

#### Zk-2446

AGINDUA, 2002ko martxoaren 26koa, Osasun sail-buruarena, ikasketetan sakontzeko beketarako deialdia egiten duena.

Osasun Sailak helburutzat dauka zerbitzu sanitarioen kalitatearen hobekuntza eta osasuneko profesionalen prestakuntza sustatzea, lehenetsuneko irizten diren arlo eta jardueretan.

Deialdi hau Sailaren helburu hauek bete ahal izateko egiten da, diru-laguntzak emanaz espezializazioko ikastaro eta egonaldiak egiteko.

Hori horrela, eta urtarrilaren 23ko 1/2002 Legeak dionaren arabera

XEDATU DUT:

#### 1. artikulua.— Esparrua eta helburua.

1.— Osasun alorrean espezializatzeko egonaldiak eta ikastaroak itzal handiko zentro eta erakundeetan burutzeko beketarako deialdia egitea da agindu honen xedea. 2002an hasiko edo inskribatzeko epea urte horretan zabalduko duten ikastaroetarako izango da deialdia, nahiz eta eskabidea egiten den momentuan prestakuntza jarduera jadanik burutua izan. Bi modalitate daude:

## Otras Disposiciones

### DEPARTAMENTO DE SANIDAD

#### Nº-2446

ORDEN de 26 de marzo de 2002, del Consejero de Sanidad, por la que se convocan Becas de Ampliación de Estudios.

Es objetivo del Departamento de Sanidad promover la mejora de la calidad de los servicios sanitarios y la formación de los profesionales sanitarios, en aquellas áreas y actuaciones consideradas prioritarias.

La presente convocatoria se realiza para cumplir estos objetivos del Departamento subvencionando cursos y estancias de especialización.

En su virtud, y de conformidad con el contenido de la Ley 1/2002 de 23 de enero

DISPONGO:

#### Artículo 1.— Ámbito y Objeto.

1.— Es objeto de esta Orden el convocar becas para la realización de cursos y estancias de especialización dentro del campo de la Sanidad en centros o instituciones de reconocido prestigio, que se inicien o cuyo plazo de inscripción comience durante el año 2002, aun cuando en el momento de la solicitud ya hubiese tenido lugar la actividad formativa, con dos modalidades:

A) Atzerriko zentroetan egiten diren ikastaro eta egonaldietarako bekak. Salbuespen gisa finantzatu ahal izango zaio zentro estataletako egonaldia prestakuntza aldian dagoen pertsonal sanitario egoiliarri, baina beraren irakaskuntza unitatean ezin egin daitezkeen formakuntza barruko derrigorrezko ekintzak burutzeko soilik.

B) Ikertzaileen prestakuntza osatzeko eta, hala badagokio, horien jatorrizko zentroetako ikerketa jarduerak bultzatzeko egonaldiak.

2.- Agindu honetan egiten den deialdi guztiak lehiaketa bidez ebatziko dira. Ondorio hauetarako, aurkeztutako eskaeren arteko konparazioa egin ondoren emango dira laguntzak. Konparazio hau 7.artikulu jarritako balorazio irizpideen arabera izango da. Honela, eskaeren arteko lehenetasun-hurrenkera egingo da, eta honen arabera balorazio handien jasotzen duten eskaerak esleituko dira, betiere zeregin honetarako onartutako aurrekontuko kreditua agortu arte.

Lehenengo deialdia ebatztean aurrekontuko baliabideak agortuko balira, Osasun Sailburuordearen Ebazpen bidez jakinaraziko litzateke inguruabar hori.

3.- Laguntzaren eskatzailea ezingo da aurkitu izatera bereko diru-laguntzen markoaren barruan hasitako itzulpen-prozedura edo prozedura zigortzaileen baten menpe.

#### 2. artikulua.- Zenbatekoak.

Ikasketak Sakontzeko Beken programarako guztizko zenbatekoa 126.220,00 euro dira (ehun eta hogeita sei mila berrehun eta hogeita euro).

#### 3. artikulua.- Onuradunak.

1.- Lehenengo artikuluan aipatzen diren A) aukerako diru-laguntzak Euskal Autonomia Erkidegoko osasun alorreko profesional guztiek jaso ahal izango dituzte, baita prestakuntza aldian dauden langile egoiliarrek ere.

2.- B) aukerako onuradunak honako hauek izango dira: ikerketak bideratzen dituen Euskadiko Osasun Sistemako itzal handiko unitate batek babesturiko Euskal Autonomia Erkidegoko profesional sanitarioak, baldin unitate horrek eskatu eta abalatu baditu bere ikerketa-lanetan integratzeko, onuraduna ikertzaile gisa prestatzeko helburuaz.

3.- Deialdi honetatik kanpo geratzen dira EAEko Administrazio Orokorrean diharduten profesionalak, Administrazio hori deialdi honetako babesle baita.

4. artikulua.- Eskabideak aurkezteko epea eta lekua.

1.- Bi epe egongo dira eskabideak aurkezteko:

Lehenengo epeak hilabeteko iraunaldia izango du deialdia EHAA n argitaratzen den egunaren biharamu-

A) Becas para la realización de cursos y estancias en centros extranjeros. Excepcionalmente, y exclusivamente para realizar aquellas actividades obligatorias de su plan de formación que no puedan realizar en su unidad docente, se podrá financiar la estancia en centros estatales al personal sanitario residente en formación.

B) Becas para estancias destinadas a completar la formación del personal investigador y, en su caso, potenciar las tareas de investigación en sus propios centros de origen.

2.- Cada una de las convocatorias que se realizan en la presente Orden se resolverá por el procedimiento de concurso. A estos efectos, la concesión se realizará mediante la comparación de las solicitudes presentadas, a fin de establecer una prelación entre las mismas atendiendo a los criterios de valoración fijados en el artículo 7, adjudicando sólo aquellas que hayan obtenido mayor valoración hasta el agotamiento del crédito presupuestario consignado a tal efecto.

En el supuesto de que con cargo a la primera convocatoria se agotasen las disponibilidades presupuestarias, se daría conocimiento de dicha circunstancia mediante Resolución del Viceconsejero de Sanidad.

3.- El solicitante de la ayuda no podrá hallarse incurso en procedimiento alguno de reintegro o sancionador iniciado en el marco de subvenciones o ayudas de la misma naturaleza.

#### Artículo 2.- Cuantía

El importe total del programa de Becas de Ampliación de Estudios es de 126.220,00 euros (ciento veintiséis mil doscientos veinte euros).

#### Artículo 3.- Beneficiarios.

1.- Las ayudas de la opción A) a la que hace referencia el artículo 1 van dirigidas al conjunto de profesionales sanitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco así como al personal residente en formación.

2.- Los beneficiarios de la opción B) serán aquellos profesionales sanitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco que sean avalados y requeridos por una Unidad del Sistema Sanitario de Euskadi con una línea de investigación acreditada, para su inclusión en tareas investigadoras y con el objetivo de formar al beneficiario como investigador.

3.- Quedan excluidas de esta convocatoria todas aquellas personas que desarrollan su actividad profesional en la Administración General de la CAPV, ente patrocinador de esta convocatoria.

Artículo 4.- Plazo y lugar de presentación de las solicitudes.

1.- Se abren dos plazos de solicitudes:

El primer plazo tendrá una duración de un mes y comenzará al día siguiente de la publicación de la Con-

netik hasita. Epe horretan, 2002ko urtarrilaren 1a eta abenduaren 31 bitartean hasten diren edo tarte horretan izena emateko epea irekita duten jardueretarako eskariak aurkeztu ahal izango dira.

Eskabideak aurkezteko bigarren epea 2002ko uztailaren 1ean hasi eta irailaren 30ean amaituko da. Aldi honetan aurkeztu ahal izango dira 2002ko maiatzaren 1etik abenduaren 31ra bitartean hasiko diren edo izena emateko epea zabalik edukiko duten jardueren datuak eskabideak.

2.- Agindu honetan ezarritako laguntzez baliatze-ko eskabideak Osasun Saileko Osasun Plangintza eta Antolamenduko zuzendariari bidaliko zaizkio. Helbidea: Donostia kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Era berean, eskabideak aurkeztu ahal izango dira Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legean emandako idazkeran, adierazitako gainerako moduetan ere.

**5. artikulua.**– Eskabidea eta aurkeztu beharreko agiriak.

1.– Diru-laguntza eskabide bakoitzari, agindu honetako I. eranskineko ereduaren arabera, agiri hauek erantsiko zaizkio:

- a) Nortasun agiriaren fotokopia.
- b) Curriculum vitae laburra, aukeratutako prestakuntza alorrean duen esperientzia zehaztuz.
- c) Aukeratutako espezializazio edo ikerketa alorrerikiko duen interesa azalduko duen txostena.
- d) A) aukerako laguntza eskatzen dutenen kasuan, egonaldiaren edo hautatutako ikastaroaren programa. B) aukerako kasuan, berriz, proposatutako prestakuntza plana eta onuraduna hartuko duen unitatea bideratzen ari den ikerketaren ezaugarriak.
- e) Aukeratutako unibertsitate edo zentroan onartu dutela agertzen duen agiria edo, hori eskuartean izan ezik, idatziz egindako eskabidearen kopia.
- f) Joan behar duen herrialdeko hizkuntza badakiela egiaztatzen duen agiria, hala bada.
- g) Beka eskatzen den datan Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko udalerriren batean erroldaturik guxienez urtebete daramala egiaztatzen duen ziurtagiria.
- h) Zinpeko aitortpena, helburu horretako beste finantzaketa biderik duenentz edo eskabidea egin duenentz egiaztatzen duena.
- i) Hirugarren interesatuaren datuen alta (II. Eranskina) banku etxeak eta eskatzaile beteta.

Eskatzaileak EAEko osasun erakunderen batekin loturirik badauka:

vocatoria en el BOPV. Se podrán presentar dentro de este plazo las solicitudes para las actividades que se inicien o cuyo plazo de inscripción comience entre el 1 de enero y el 31 de diciembre de 2002.

El segundo plazo de presentación de solicitudes comenzará el 1 de julio y finalizará el 30 de setiembre de 2002. Se podrán presentar dentro de este periodo las solicitudes correspondientes a actividades que se inicien o cuyo plazo de inscripción comience entre el 1 de mayo y el 31 de diciembre de 2002.

2.– Las solicitudes para acogerse a las ayudas establecidas en la presente Orden, se dirigirán y remitirán al Director de Planificación y Ordenación Sanitaria del Departamento de Sanidad (C/Donostia-San Sebastián, n.º 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

Asimismo, las solicitudes podrán presentarse en las demás formas indicadas por el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común en la redacción dada por la Ley 4/1999 de 13 de enero.

**Artículo 5.**– Solicitud y documentación a presentar.

1.– A cada solicitud de ayuda, según el modelo del Anexo I de la presente Orden, deberá adjuntarse la documentación siguiente:

- a) Fotocopia del Documento Nacional de Identidad.
- b) Curriculum Vitae abreviado especificando la experiencia en el área de formación para la que se pide la ayuda.
- c) Memoria explicativa de su interés por el área de especialización o investigación elegida.
- d) Programa de la estancia o del curso seleccionado para los que soliciten la ayuda en base a la modalidad A) o plan de formación propuesto y características de la línea de investigación emprendida por la Unidad investigadora en la que va a realizar su actividad en la modalidad B).
- e) Aceptación en la Universidad o Centro elegido o, en caso de no poseerla todavía, copia del escrito de solicitud de admisión.
- f) Justificante, en su caso, de conocimiento del idioma del país de destino.
- g) Certificado de empadronamiento en un municipio de la Comunidad Autónoma del País Vasco al menos con un año de anterioridad a solicitar la beca.
- h) Declaración jurada sobre la existencia o solicitud de otras fuentes de financiación para el mismo fin.
- i) Alta de datos de tercero interesado, (Anexo II), cumplimentada por el solicitante y la entidad bancaria.

Si el solicitante está vinculado a alguna institución sanitaria de la CAPV:

j) Zuzendari Medikoaren edo horren pareko norbaiten txostena datu hauekin: diruz laguntzea nahi den prestakuntza-jarduera zenbateraino den baliagarria Zentroarentzat, eskatutako prestakuntza eta eskatzailearen lana bat datozen eta proposatutako ikasketaproiektuaren kalitatea. Baldin eskatzailea Osakidetza-ko Lehen Atentzioko Zerbitzuko kide bada, txostena dagokion Eskualdeko Zuzendari Medikoak egingo du.

k) Lantokiko zuzendariaren desplazatzeko baimena. Bertan prestakuntza-aldian onuradunari soldata ordainduko zaion ala ez adieraziko da.

2.— Hala komeni dela irizten dion kasuetan, Osasun Sailak egoki deritzon informazio osagarria aurkezteko eskatu ahal izango du.

3.— Eskabidearekin batera aurkeztu den dokumentazioa berreskuratzeko epea, laguntza ukatu den kasuetan, hilabetekoa izango da Osasun sailburuordearen Ebazpenaren argitaratetik kontatzen hasita, betiere ebazpenari ez bazaio errekurtsorik egin. Errekurtsorik egin bada, epea berorren gutxiespeneko ebazpenaren jakinarazpenetik aurrera hasiko da.

#### 6. artikulua.— Ebazpena.

1.— Ebazpen bidez ebatziko ditu deialdiak Osasun sailburuordeak, Osasun sailburuak izendatutako Balorazio Batzordearen proposamena jaso ondoren. Ebazpenok Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira.

2.— Hauek osatuko dute Balorazio Batzordea: lehendakari, Osasun sailburuordea; eta bokalak, Osasun Plangintza eta Antolamenduko zuzendaria, Osasun Plangintzako zuzendariordea, Osasun Publikoko Zuzendaritzako ordezkari bat, Osakidetza Ente Publikoaren Zuzendaritza Nagusiko ordezkari bat eta Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritzako teknikari bat, azken honek idazkari-lana egingo duela. Batzordekideen izenak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira.

Batzorde honek eskabideen balorazio egokia egiteko beharrezko deritzen txosten teknikoak eskatu ahal izango ditu.

3.— Osasun Sailak onarpen agiria bidaliko dio laguntza hartzaileari; honek, behar bezala beteta, hamabost egun balioduneko epean itzuli beharko du, jasotzen duen egunetik kontatzen hasita. Epe horretan itzuli ezik, laguntzari uko egin diola ulertuko da.

Onuradunen batek laguntzari uko egiten badio, zenbateko hori diru-laguntzarik jaso ez duen beste eskatzaile bati eman ahal izango zaio, Balioespen Batzordeak proposatutako ordezkapen eta lehentasun hurrenkerari jarraituz.

j) Informe del Director Médico o figura equivalente, valorando la utilidad que para el Centro tendría la actividad formativa para la que se solicita la ayuda, la adecuación laboral del solicitante a dicha formación y la calidad del proyecto de estudios propuesto. En caso de que el solicitante pertenezca al Servicio de Atención Primaria de Osakidetza-Servicio vasco de salud el informe será del Director Médico de la Comarca correspondiente.

k) Autorización de desplazamiento del Director del Centro de trabajo, en la que conste si se le mantiene o no el sueldo al solicitante durante el tiempo que dure la beca.

2.— En aquellos casos en que estime conveniente, el Departamento de Sanidad podrá recabar la presentación de la información complementaria que considere oportuna.

3.— El plazo para retirar la documentación aportada con la solicitud, en los supuestos de denegación de la ayuda, será de un mes a partir de la publicación de la Resolución del Viceconsejero de Sanidad siempre que no se haya recurrido la misma. En caso de haberlo sido, el plazo comenzará a contar desde la notificación de la resolución desestimatoria.

#### Artículo 6.— Resolución.

1.— Las convocatorias serán resueltas por el Viceconsejero de Sanidad a propuesta de la Comisión de Valoración nombrada al efecto por el Consejero de Sanidad, mediante sendas Resoluciones que serán publicadas en el Boletín Oficial del País Vasco.

2.— La Comisión de Valoración estará presidida por el Viceconsejero de Sanidad y formaran parte de ella el Director de Planificación y Ordenación Sanitaria, el Subdirector del Plan de Salud, un representante de la Dirección de Salud Pública, un representante de la Dirección General del Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud y un técnico de la Dirección de Planificación y Ordenación Sanitaria, que actuará, además, como secretario. Su composición nominal será publicada en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dicha Comisión podrá solicitar los informes técnicos que considere necesarios para una adecuada valoración de las solicitudes.

3.— El Departamento de Sanidad remitirá al adjudicatario de la ayuda el correspondiente documento de aceptación, que éste último deberá devolver debidamente cumplimentado, en el plazo de quince días hábiles desde que lo reciba. Caso de no devolverlo en dicho plazo, se entenderá que renuncia a la ayuda.

En caso de renuncia de la ayuda por parte de un beneficiario, la cantidad de dicha ayuda podrá destinarse a otra solicitud no subvencionada y siguiendo el orden de suplencia y prelación propuesta por la Comisión de Valoración.

4.– Osasun sailburuordearen ebazpenaren aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osasun sailburuari hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik kontatzen hasita, lehen aipatutako 30/1992 Legearen 114. eta hurrengo artikuluetan, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen idazkeran, ezarritakoaren arabera.

5.– Baldin eskabideak aurkezteko epea amaitu, eta hiru hilabeteko epean Osasun sailburuordearen ebazpena jakinarazi ez bada, ebatzi gabeko eskariak ezetsitatzeko dira, lehen aipatutako 30/1992 Legeko 44. artikuluan ezartzen diren ondorioetarako. Hala ere, administrazioak ebazpen adierazia emateko duen obligazioak hor jarraituko du.

#### 7. artikulua.– Esleitzeko irizpideak.

1.– Diru-laguntzak esleitzeko orduan, lehenetsuna izango dute, A modalitatean, osasun erakundeei lotutako profesionalek, baldin eta ELGEko herrietan Osasun Planari edo gai hauei buruzko ikerketak egin behar badituzte:

- Osasun zerbitzuen antolaketa eta kudeaketa.
- Osasun zerbitzuen eta teknologia berrien ebaluazioa.
- Asistentziaren kalitatea.
- Erizaintzako antolaketa, kudeaketa eta ebaluazioa.
- Osasun publikoa eta Osasunaren sustapena.
- Europako Batasunaren deialdietako gaiak.

2.– Halaber, lehenetsuna emango zaie aurreko urtean Osasun Sailaren diru-laguntza jaso duten ikerketen jarraipen diren eskariei eta prestakuntza aldian dauden egoiliarrentzako derrigorrezko jarduerari.

3.– Laguntzak esleitzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- Eskatzailearen curriculum vitae: ... Gehienez %20.
- Ikasketak edo ikerketa plana zein zentro edo erakundetan egingo diren: ..... Gehienez %20.
- Ikasketak artikulua honetako 2. paragrafoan lehenetsunez jotzen diren alorrei lotuta dauden; egonaldia edo ikastaroa baliagarria den eta eskatzailearen lanarekin zerikusia duen; zuzendari medikoaren edo horren parekoaren balorazioa, zeinetan prestakuntza jarduerak zentroarentzat baliagarri diren eta aukeratutako ikerketaren alorrean ikerketa-proiektuak edo prestakuntza-planak norainoko kalitatea duen adieraziko baita; aurkeztutako txostena eta, zentro batetik eskatzaile bat baino gehiago aurkezten bada, lehenetsun hurrenkera: ..... Gehienez %60.

#### 8. artikulua.– Zenbatekoa eta ordaintzeko era.

1.– Joan-etorriko bidaia gastuak, matrikula gastuak eta ezohiko zenbait gastu, hala nola ikastaroko mate-

4.– Contra la Resolución del Viceconsejero de Sanidad, podrán los interesados interponer recurso de alzada ante el Consejero de Sanidad, en el plazo de un mes a partir de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, de conformidad con lo establecido en los artículos 114 y siguientes de la Ley 30/1992 de 26 de noviembre, en la redacción dada por la Ley 4/1999 de 13 de enero.

5.– Si transcurridos tres meses desde la fecha de finalización del respectivo plazo de presentación de solicitudes, no se ha notificado la correspondiente Resolución del Viceconsejero de Sanidad, podrán entenderse desestimadas las solicitudes no resueltas, a los efectos de lo establecido en el artículo 44 de la Ley 30/1992 antes mencionada, sin perjuicio de la obligación que dicha Ley impone a la Administración de resolver expresamente.

#### Artículo 7.– Criterios de adjudicación.

1.– Tendrán carácter prioritario para la adjudicación de las becas, en la modalidad A, aquellos estudios a realizar por el personal vinculado a instituciones sanitarias, en países de la O.C.D.E., relacionados con el Plan de Salud o las siguientes áreas temáticas:

- Organización y gestión de servicios sanitarios.
- Evaluación de servicios sanitarios y de nuevas tecnologías.
- Calidad asistencial.
- Organización, gestión y evaluación en enfermería.
- Salud Pública y Promoción de la Salud.
- Áreas temáticas de las convocatorias de la Unión Europea.

2.– Asimismo se considerarán como prioritarias aquellas solicitudes que supongan continuación de los estudios subvencionados por el Departamento de Sanidad en el año anterior y las actividades obligatorias de formación del personal residente en formación.

3.– La adjudicación de las ayudas se realizará siguiendo los siguientes criterios:

- Curriculum Vitae del solicitante: .... Máximo 20%.
- Centro o Institución en el que vayan a realizarse los estudios ó el plan de investigación: ... Máximo 20%.
- Relación de los estudios con las áreas que se declaran de carácter prioritario en el apartado 2 de este artículo, utilidad y adecuación de la estancia o curso a la actividad laboral del solicitante, valoración del Director Médico, o figura correspondiente, sobre la utilidad para el Centro de la actividad formativa para la que se pide la ayuda, la calidad del proyecto de estudios o plan de formación en la línea de investigación elegida así como de la memoria presentada y el orden de prioridad, en caso de presentación de varios solicitantes de un mismo centro: ..... Máximo 60%.

#### Artículo 8.– Cobertura y forma de pago.

1.– La dotación de la beca podrá cubrir los gastos de viaje de ida y vuelta, los gastos de matrícula y los gas-

rialak eta abar hartuko ditu beka. Gainera, hileko mantenu gastuetarako diru-izendapena ere egin daiteke zeina bekadunak beka jasotzen duen bitartean beste diru-sarrerarik ez badauka, 800 euro izan baitaiteke EA Erago, 1.200 euro Espainiako Estaturako, edo 1.500 euro atzerriko.

Baldin onuradunek Osakidetzan lan egiten badute eta soldata jasotzen jarraitzen badute, behar bezala justifikatuz gero, diru-izendapen bat jaso ahal izango du, hileko, atzerrian dauden bitarteko ostatu eta mantenu gastuetarako. Horretarako kopurua ez da inola ere 601,00 eurotik gorakoa izango.

2.- Atzerriko egonaldiak 3 hilabetetik gorakoak izan eta familiarekin batera egiten baldin badira, hileko 480,00 euroraino irits daitekeen gehigarriko laguntza bat eman ahal izango da. Kasu horretan, eskatzaileari bakarrik ordainduko zaizkio bidaia gastuak, eta ez berekin doazen familiartekoei.

Bekadunaren familia beka amaitu baino lehenago Euskal Autonomia Erkidegora itzultzen bada, berehala jakinarazi beharko zaio Osasun Sailari, itzultzen den egunean bertan etengo baita familiarentzako laguntza.

3.- Emandako laguntzaren ordainketa honela egingo da:

A) Atzerriko zentroetan egin beharreko egonaldi eta ikastaroetarako beka.

Laguntzaren zenbatekoaren %75 berau onartzerakoan ordainduko da, gainerako %25a, berriz, diruz lagundutako ikasketak amaitu eta, bi hilabeteko epean gehienez, honako agiri hauek aurkeztu ondoren:

a) Zentroak emandako aprobetxamendu ziurtagiria edo titulua.

b) Azkeneko oroit-idazkia.

c) Diru-laguntzarekin ordaindutako gastuen zerrenda eta justifikatu beharreko gastuen jatorrizko fakturak (Bidaiak, matrikula eta ezohiko gastuak).

Egonaldia edo ikastarora joatea Agindu hau indarrean jarri aurretik egin bada, agiri horiek aurkezteko epea bi hilabetekoa izango da, beka ematen denetik kontatzen hasita.

Prestakuntza-aldia urtebetetik gorakoa bada, prestakuntza-plan osoa aurkeztu beharko du bekadunak, eskabidearekin batera.

Beka urtebeterako emango da, gehienez ere. Bera amaituta, bekadunak beste diru-laguntza bat eskatu ahal izango du, bere garaian egingo den deialdiaren arabera.

tos extraordinarios, tales como material del curso, etc. Además se podrá conceder una asignación mensual para gastos de mantenimiento que, en el caso de que el becario careciese de ingresos durante el disfrute de la beca, podrá ascender hasta la cantidad de 800,00 Euros en la Comunidad Autónoma del País Vasco, 1.200,00 Euros para el resto del Estado español o de 1.500,00 Euros para el extranjero.

En el supuesto de que los beneficiarios trabajen en Osakidetza-Servicio vasco de salud y sigan percibiendo el sueldo, sólo podrán acceder, justificándolo debidamente, a una asignación mensual para gastos de alojamiento y manutención de sus estancias en el extranjero, que no superará la cuantía de 601,00 euros.

2.- Para cursos o estancias en el extranjero superiores a tres meses, en el caso de desplazamiento con la familia, se podrá contemplar una ayuda adicional de un máximo de 480,00 euros mensuales. En este caso los gastos de viaje se abonarán solamente al solicitante y no a los familiares que le acompañen.

Si la familia del titular de la beca regresase a la Comunidad Autónoma del País Vasco antes de la finalización de la misma, deberá comunicarlo al Departamento de Sanidad inmediatamente, ya que tal hecho implicará la supresión de la ayuda familiar desde el mismo día del retorno.

3.- El pago de la ayuda concedida se efectuará de la siguiente forma:

A) Becas para la realización de cursos y estancias en centros extranjeros.

Un 75% de la cuantía total de la ayuda tras la aceptación de la misma, y el 25% restante una vez finalizados los estudios subvencionados, y tras la remisión en un plazo máximo de dos meses de la siguiente documentación:

a) Certificado de aprovechamiento o título expedido por el centro.

b) Memoria final.

c) Relación de gastos totales y originales de las facturas de los gastos a justificar, (Viajes, matrícula y gastos extraordinarios).

En el supuesto en que la estancia o asistencia al curso hubiese tenido lugar con anterioridad a la entrada en vigor de la presente Orden, la citada documentación deberá presentarse en el plazo de dos meses contados a partir de la concesión de la beca.

Cuando el período de formación sea superior a un año, el becario deberá presentar en la solicitud el plan completo de formación.

La beca sólo se concederá por el plazo máximo de un año, finalizado el cual el becario podrá solicitar una nueva ayuda, de acuerdo con la convocatoria que en su momento se realice.

B) Ikertzaileen prestakuntza osatzeko eta, hala badagokio, horien jatorrizko zentroetako ikerketa jarduerak bultzatzeko egonaldietarako bekak.

Modalitate honetako bekak hiru hilabeterik behin ordainduko dira, bekaduna lankide den ikerketa-unitateko arduradunak aldeko irizpena eman ondoren. Azken ordainketa jaso aurretik, azken txostena edo urtekoa aurkeztu beharko da.

**9. artikulua.**— Onuradunen betebeharrak.

Agindu honetan arautzen diren diru-laguntzak jasotzen dituzten onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte:

1.— Emandako laguntza onartzea, 6.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.— Laguntza emana izan den helburuetarako erabilteza.

3.— Ekonomi Kontrolerako Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak beren zereginetan dihardutela, deialdi honen kargura jasotako diru-laguntzei buruz eskatutako informazio guztia ematea.

4.— Diru-laguntza eskabidean agertu ziren datu edo baldintzetakoren bat aldatzen bada, horren berri ematea, idatziz, Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritzari, bai eta diruz lagundutako jarduera horietarako beste iturriren bateko finantzaketarik lortzen bada ere.

**10. artikulua.**— Bateriaezintasunak.

Beka honekin batera ezingo da jaso helburu bererako beste inolako laguntzarik. Bekadunak, beste finantzaketa iturriren bat baldin badu, Osasun Sailari jakinarazi beharko dio idatziz.

**11. artikulua.**— Diru-laguntza emateko baldintzak aldatzea.

Diru-laguntza ematerakoan kontuan edukirik baldintzetan edozein aldaketa izanez gero, betiere helburua bete dela ulertzen bada, eta, hala badagokio, helburu berarekin laguntzarik jasoz gero, diru-laguntza ematen duen ebazpena aldatu ahal izango da. Horretarako, dagokion likidazio-ebazpena emango du Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritzak, bertan diru-laguntzen zenbatekoak doituko direlarik.

**12. artikulua.**— Onuradunaren hitz-ematea.

Prestakuntza-aldia amaituta, horren iraupena urtebetetik gorakoa bada, Osakidetzatik datorren bekadunak bere lanpostura itzultzeko eta bertan jardunean guxienez bi urtez egoteko konpromisoa hartuko du.

**13. artikulua.**— Ez-betetzeak.

Abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan agindutakoarekin bat etorritik, zeinaren bidez arautzen baita Eus-

B) Becas para estancias destinadas a completar la formación del personal investigador y, en su caso, potenciar las tareas de investigación en sus propios centros de origen.

El pago de las becas de esta modalidad se hará trimestralmente previo informe positivo del responsable de la Unidad investigadora en la que esté colaborando el becario. El último de los abonos se realizará previa presentación de la memoria final correspondiente.

**Artículo 9.**— Obligaciones del beneficiario.

Los beneficiarios de las subvenciones reguladas en la presente Orden deberán cumplir en todo caso las siguientes obligaciones:

1.— Aceptar la ayuda concedida, en los términos del artículo 6.3.

2.— Utilizar la subvención para el concreto destino para el que ha sido concedida.

3.— Facilitar a la Oficina de Control Económico y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, la información que le sea requerida en el ejercicio de sus funciones respecto de las subvenciones recibidas con cargo a esta convocatoria.

4.— Comunicar a la Dirección de Planificación y Ordenación Sanitaria cualquier variación de los datos o circunstancias que se reflejaron en la solicitud.

**Artículo 10.**— Incompatibilidad de las ayudas.

La concesión de la beca es incompatible con cualquier otro tipo de ayuda para el mismo fin, debiendo comunicar el becario por escrito al Departamento de Sanidad la obtención de cualquier otro tipo de fuente de financiación.

**Artículo 11.**— Alteración de las condiciones de la subvención

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, siempre que se entienda que no se incumple el objetivo de la ayuda, y en su caso, la obtención concurrente de otras ayudas, podrá dar lugar a la modificación de la subvención. A estos efectos, por la Dirección de Planificación y Ordenación Sanitaria se dictará la oportuna Resolución de minoración, en la que se reajustará la cuantía de la subvención concedida.

**Artículo 12.**— Compromiso del beneficiario.

Al finalizar el período de formación, cuando su duración sea superior a un año, el becario que proceda de Osakidetza-Servicio vasco de salud se compromete a reincorporarse a su puesto de trabajo, permaneciendo en activo un mínimo de dos años.

**Artículo 13.**— Incumplimientos.

De acuerdo con lo establecido en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, por el que se regula el

kal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura ematen diren diru-laguntzen berme eta ordainketen erregimena, baldin onuradunak betetzen ez baditu ezarritako baldintza eta epeak edota beka beste helburu baterako erabiltzen badu, laguntza eskuratzeko eskubidea galdu egin duela eta, hala badagokio, jasotako diru-zenbatekoak eta legezko korrituak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusira itzuli behar dituela deklaratu ahal izango da, ebazpen bidez, prozedurazko izapideak egin ondoren, bidezkoak izan daitezkeen beste eginbide batzuen kalterik gabe. Diru-zenbateko horiek, ondorio guztietarako, diru-sarrera publikotzat joko dira.

Ez-betetzeagatiko espedienteak hasi eta ebazteko eskumena Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendariari dagokio.

#### XEDAPEN GEHIGARRIA

2. artikuluan zehazten den guztizko zenbatekoa aldatu ahal izango da, eskaturiko laguntzen guztizko kopurua kontuan edukiz, Osasun Saileko beste programa batzuk burutu ondoren agortu gabe geratu diren baliabide ekonomikoen arabera, baldin Deialdi honen Ebazpena baino lehenagokoak badira. Inguruabar hori jakitera emango da Osasun sailburuordearen ebazpenaren bitartez.

#### AZKEN XEDAPENAK

**Lehenengoa.**— Agindu honetan aurreikusten ez den guztian aplikatu ahal izango da azaroaren 26ko 30/1992 Legeak ezartzen duena, hau da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoen eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen erredakziokoan.

**Bigarrena.**— Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2002ko martxoaren 26a.

Osasun sailburua,  
GABRIEL M.<sup>a</sup> INCLÁN IRIBAR.

régimen de garantías y reintegros de las subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en el supuesto de que el beneficiario incumpliere los requisitos y plazos establecidos o el destino de la ayuda, se declarará, previa la sustanciación de los trámites procedimentales oportunos, la pérdida del derecho a la percepción de la ayuda y, en su caso, la obligación de reintegrar a la Tesorería General del País Vasco las cantidades ya percibidas con sus intereses legales, sin perjuicio de las demás acciones que procedan. Las referidas cantidades tendrán la consideración de ingresos públicos a todos los efectos.

Será competente para el inicio y resolución de expediente por incumplimiento el Director de Planificación y Ordenación Sanitaria.

#### DISPOSICIÓN ADICIONAL

El importe total consignado en el artículo 2 podrá ser modificado, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades económicas no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Sanidad y con carácter previo a la Resolución de la Convocatoria. De dicha circunstancia se dará publicidad mediante Resolución del Viceconsejero de Sanidad.

#### DISPOSICIONES FINALES

**Primera.**— En todo lo no previsto en la presente Orden será de aplicación lo establecido en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común en la redacción dada por la Ley 4/1999 de 13 de enero.

**Segunda.**— La presente Orden entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 26 de marzo de 2002.

El Consejero de Sanidad,  
GABRIEL M.<sup>a</sup> INCLÁN IRÍBAR.



## I. ERANSKINA

## IKASKETETAN SAKONTZEKO BEKETARAKO ESKABIDEA

## NORBERAREN DATUAK

Abizenak: .....	NAN: .....
Izena: .....	
Jaioteguna: .....	
Helbidea: .....	zk. ....
Herria: .....	PK: .....
Telefonoa:.....	

Aurkitzeko beste helbide bat:
Helbidea:.....zka .....
Herria: .....Herrialdea: ..... PK:.....
Telefonoa:.....

BANKUKO DATUAK: Bete Hirugarren interesatuaren datuen altako inprimakia (II. eranskina)

## DATU AKADEMIKOAK

Titulua: .....
Unibertsitatea edo zentroa: .....
Espezialitatea: .....
Unibertsitatea edo zentroa: .....
Ikasketen hasiera urtea:..... Ikasketen amaiera urtea: .....
Zein urtetan lizentziatua: ..... Zein urtetan doktoratua: .....
Tesi edo tesinaren titulua: .....
.....
Graduondoko bestelako ikasketak: .....

## DATU PROFESIONALAK

Lantokia: .....
Zerbitzua: .....
Betetako lanpostua: .....
Lanpostuaren izaera: <input type="checkbox"/> Finkoa <input type="checkbox"/> Bitartekoa <input type="checkbox"/> Bestelakoa.
Sarrera eguna: ...../...../.....
Bestelako datuak: .....
.....
Eskatu diozu inoiz diru-laguntzarik Eusko Jaurlaritzari?:
Baiezkoan:
Urtea: ..... Kontzeptua: .....
Eman zizuten?: <input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ      («x» bat jarri)

## BURUTU NAHI DEN EGONALDIAREN EDO IKASTAROAREN DATUAK

Ikastaroaren izena edo egonaldiaren helburua: .....
Unibertsitatea edo zentroa: .....
Saila: .....
Helbidea: ..... zka.....
Herria: .....
Herrialdea: ..... Posta kodea: .....
Telefonoa: .....

Beka-aldian izango duen egoitza:
Helbidea: ..... zka.....
Herria: ..... Herrialdea: ..... PK: .....
Telefonoa: .....

Hasiera eguna:.....	Amaiera eguna: .....
Ordu teorikoen kopurua: .....	Ordu praktikoen kopurua: .....
Ikastaroaren ordu banaketa: .....	
Ikastaroaren zuzendaria: .....	
Tutorea (egotekotan): .....	
Lortu nahi den titulua (hala dagokionean): .....	
Ikastaro amaierako tesia edo mintzaldia (hala dagokionean): .....	
.....	

## EGONALDIAREN EDO IKASTAROAREN AURREKONTUA

Matrikula: .....	euro
Joan-etorriak: .....	euro
Ostatua .....	euro
Mantenua: .....	euro
Famili gastuak: .....	euro
Beste gastu batzuk (zehaztu) .....	euro
GUZTIRA: .....	euro

## BESTELAKO FINANTZAZIO ITURRIAK

Baduzu bestelako finantzazio iturririk? Zein?	<input type="checkbox"/> BAI	<input type="checkbox"/> EZ («x» bat jarri)	Urteko diru-zenbatekoa:
.....	.....	.....	euro
.....	.....	.....	euro
Eskatu duzu beste laguntzarik? Zein erakunderi?	<input type="checkbox"/> BAI	<input type="checkbox"/> EZ («x» bat jarri)	Urteko diru-zenbatekoa
.....	.....	.....	euro
.....	.....	.....	euro

Aurkezten diren agiriak («x» bat jarri):

[ ] NAN.

[ ] Curriculum Vitae.

[ ] Eskatutako prestakuntzan dudaren interesari buruzko txostena.

[ ] Egonaldiaren edo ikastaroaren programa eta/edo prestakuntza plana.

[ ] Aukeratutako unibertsitate edo zentroan onartu izanaren agiria.

[ ] Hizkuntzaren egiaztatzea.

[ ] Erroldatze ziurtagiria.

[ ] Bestelako finantzazioei buruzko zinpeko aitortpena.

Eskatzailea osasun erakunderen bateko kide bada:

[ ] Dagokion Zuzendari Medikoaren edo horren parekide den norbaiten txostena. Lehen Mailako Atentzioan, Eskualdeko Zuzendari Medikoaren txostena

[ ] Joateko baimena, Zuzendaritzak emana (Osakidetzako langileak bakarrik).

Vitoria-Gasteiz, -ko -ren -(a).

Eskatzailearen sinadura

OSASUN PLANGINTZA ETA ANTOLAMENDUKO ZUZENDARI JAUNA.

## ANEXO I

## SOLICITUD DE BECA DE AMPLIACIÓN DE ESTUDIOS

## DATOS PERSONALES

Apellidos: .....	
Nombre: .....	
Fecha de nacimiento: .....	D.N.I.: .....
Domicilio: .....	
Localidad: .....	C.P.: .....
Teléfono: .....	

Otra dirección para localizarle: .....	
Dirección: .....	
Localidad: .....	País: ..... C.P.: .....
Teléfono: .....	

DATOS BANCARIOS: *Cumplimentar el impreso de Alta de Datos de Tercero Interesado que aparece en el Anexo II.*

## DATOS ACADÉMICOS

Título: .....	
Universidad o Centro: .....	
Especialidad: .....	
Universidad o Centro: .....	
Año inicio estudios: .....	Año fin estudios: .....
Licenciado año: .....	Doctorado año: .....
Título de la tesis o tesina: .....	
.....	
Otros estudios de postgrado: .....	

## DATOS PROFESIONALES

Lugar de trabajo: .....	
Servicio: .....	
Puesto desempeñado: .....	
.....	
Carácter del puesto: <input type="checkbox"/> Fijo: <input type="checkbox"/> Interino: <input type="checkbox"/> Otro:	
Fecha de Ingreso: ...../...../.....	
Otros datos: .....	
.....	
¿Ha solicitado con anterioridad alguna ayuda económica del Gobierno Vasco?:	
En caso afirmativo:	
Año: ..... Concepto: .....	
¿Se le concedió?: <input type="checkbox"/> SI <input type="checkbox"/> NO    (Marcar con una «x»)	

## DATOS DE LA ESTANCIA O CURSO QUE DESEA REALIZAR

Nombre del Curso u Objetivo de la Estancia:.....
Universidad o Centro:.....
Departamento: .....
Dirección: .....
Localidad: .....
País: ..... Código Postal: .....
Teléfono: .....

Residencia durante el disfrute de la beca: .....
Dirección: .....
Localidad: ..... País: ..... C.P.: .....
Teléfono: .....

Fecha comienzo:..... Fecha finalización:.....
N.º horas teóricas:..... N.º horas prácticas: .....
Distribución horaria del curso: .....
Director del curso: .....
Tutor (en su caso): .....
Título a conseguir (en su caso): .....
Tesis o disertación de fin de curso (en su caso): .....

## PRESUPUESTO DE LA ESTANCIA O CURSO

Matrícula: .....	euros
Traslados: .....	euros
Alojamiento: .....	euros
Manutención: .....	euros
Gastos familiares: .....	euros
Otros gastos (especificar): .....	euros
Total .....	euros

## OTRAS FUENTES DE FINANCIACIÓN

¿Dispone de otras fuentes de financiación?	<input type="checkbox"/> SI	<input type="checkbox"/> NO	(Marcar con una «x»)
¿Cuáles?:	Importe anual:		
.....	euros		
.....	euros		
¿Ha solicitado otras ayudas?:	<input type="checkbox"/> SI	<input type="checkbox"/> NO	(Marcar con una «x»)
¿A qué organismos?:	Importe anual:		
.....	euros		
.....	euros		

Documentación que se adjunta (Marcar con una «x»):

- { } DNI.
- { } Curriculum Vitae.
- { } Memoria del interés en la formación solicitada.
- { } Programa y/o plan de formación de la estancia o curso.
- { } Aceptación en la Universidad o centro elegido.
- { } Justificante del idioma.
- { } Certificado de empadronamiento
- { } Declaración Jurada sobre otras financiaciones

Si el solicitante pertenece a una institución sanitaria:

- { } Informe del Director Médico correspondiente o figura equivalente. En Atención Primaria: Informe del Director Médico de la Comarca.
- { } Autorización de desplazamiento por parte de la Dirección (sólo personal de Osakidetza-Servicio vasco de salud).

En a de de

Firma del solicitante

ILMO. SR. DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN Y ORDENACIÓN SANITARIA.

## II.ERANSKINA / ANEXO II

## DATUEN ALTA/ HIRUGARREN INTERESATUA / ALTA DE DATOS /TERCERO INTERESADO

HIRUGARRENAREN EZAGUPENERAKO DATUAK  
DATOS IDENTIFICATIVOS DEL TERCERO (A)

(1) N.A.N./I.F.K. D.N.I./C.I.F .....
(2) Bi abizenak eta izena/Sozietatearen izena Dos apellidos y nombre/Razón Social .....

HELBIDERATZE-DATUAK  
DATOS DE DOMICILIACION (B)

Helbidea Dirección .....	
Posta kodea Código .....	Udala Población .....
Lurraldea Provincia .....	

## BANKUAREN DATUAK / DATOS BANCARIOS (C)

(1) Bankua / Banco	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	
(2) Agentzia / Agencia	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	
(3) K.D. / D.C.	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	K/Korrontea / C.Corrente <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>
(4) Jabea / Titular .....		

Bankuaren adostasuna Conforme Banco
Sinadura eta zigilua Sello y Firma (D)

Hirugarrenaren adostasuna Conforme Tercero
Sinadura eta zigilua Sello y Firma (E)

Sailaren onespena V.ºB.º Departamento
Baimendutako sinadura Firma Autorizada (F)

Kontabilitatearen onespena V.ºB.º Contabilidad
Baimendutako sinadura Firma Autorizada (G)